



Bertsozale Elkartearen Berripapera

	ESPAÑA
	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

Bertsozalea

www.bertsozale.com

2014ko APIRILA - 154. zenbakia

Iñaki Murua Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko lehendakaria beste hiru urtez

Martxoaren 29an egin genuen Durango Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen Batzar Nagusia. 76 bazkidek hartu genuen parte eta Iñaki Murua Jauregi hurrengo hiru urterako aukeratu genuen lehendakari. Iazko memoria eta balantzea zein aurtengo egitasmoa eta aurrekontua aho batez onartu ziren. Honakoak dira, laburbilduta, 2014rako ditugun egitasmo nagusiak.

Mintzola Ikertegia eta Elkargunea

Bertsolaritzaren Ikertegia eta ahozko kultur sorkuntzen elkargunea da Mintzola Fundazioa.

Ikerkuntzari dagokionez, bertsolaritza ikertzen ari direnak laguntzen eta formazio eta ikerketa arloko eragileekin sarea ehuntzen jarraituko dugu. Alde horretatik, iaz egin moduan, bertsolaritzari buruzko doktore tesi berri bat egiteko beka eskaintzea da aurtengo egitasmo nagusienetakoa. Horrekin batera, EHUko udako ikastaroen baitan, uztailean, bertsolaritzari buruzko zikloa eskainiko dugu Miramar Jauregian.

Elkargunearen funtzioa ahozko kultur sorkuntzan ari diren eragileekin elkarlana bultzatzea da. Zentzu horretan, Ahoa Bete Hots jardunaldien bosgarren edizioa gauzatuko dugu. Uztailean izango dira jardunaldiok ere.

Mintzola Fundazioaren egituran eta patronatuan aldaketak eman dira. Gaur egun Bertsozale Elkarteak lau ordezkari ditu, Gipuzkoako Foru Aldundiak bi eta Amasa-Villabonako udalak, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Kutxak bana. Iñaki Murua da Mintzola Fundazioko lehendakaria eta patronatuan Bertsozale Elkarteak, Iñakirekin batera, beste hiru ordezkari ditu: Beñat Gaztelumendi, bertsolaria eta Bertsozale Elkarteko ikerkuntza sailaren arduraduna, Andoni Egaña, bertsolaria eta ikerlaria; eta Joana Itzaina, Bertsularien Lagunak Elkarteko lehendakaria.

Xenpelar Dokumentazio Zentroa da Mintzola proiektuaren oinarri nagusia eta Elkartearen proiektu orokorrean ere ezinbesteko pieza. Aurten funtzionamendu digitalean sakondu nahi dugu eta Dokumentazio Zentroaren lana bera gizarteratzeko ahalegina egingo dugu.



ONINTZA ENBEITA

Berriz, 2013-III-14

Gaia: Zer maite duzu?

Doinua: Haizea dator iparraldetik

Bizitza bera maite dot gogoz
bizitza ta ze istori...
Goizean jagi ogetik eta
beti pentsetan dot ongi.
Ai ispilutxo irribarre bat
bihotzez gaur zeuri tori.
Kalera urten ta zenbat mosu
besarkada, kategori...
Egia esan nik maitasunik
ez deutset kendu inori
bizitzan erein behar dalako
geuretzat nahi dogun hori.

Nik maitasunez nahi dot bertsotan
plaza guztietan kantau.
Nik maitasunez nahi dot besteen
maitasun apurra probau.
Maite zaituet danok batera
maite dodaz hori ta hau
ta maite dodaz Madrilen zehar
botatako hainbeste gau.
Nik maitasunez sortu nahi dodaz
mila diskurtso ta arau
batzuek paso eginagatik
nahi dauanak hartuko dau.

Ogetik jagi ogera sartu
maiteari mosu emon
edo amagaz kafe bat hartzen
aitaren ondoan egon.
Maitasunezko giroren bat non
ba bueno Onintzatxu non
ez dot ukatu maitasun asko
danak gura dodaz jagon.
Ez dot ukatu neure zatirik
badakit mina nun dagon
baina maitasun apurrik ez dot
ukatu sekula inon.
Ze simplea dan ta nik bihotzez
esan ohi dot beti egun on.
Maite nabenak poztuko dira
eta besteak hor konpon!



Batzar Nagusia.//XDZ

→→→ Hurrengo orrian jarraitzen du

Sustapena Gai-jartzaileen bertso-eskola

Bertsolaritzaren eta, batez ere, bertsogintzaren, sustapenari lotuta gai-jartzaileen eskola martxan jartzea izango da aurtengo berrikuntza.

Bestalde, bukatu berri den 2013ko Bertsolari Txapelketa nagusiko balorazioekin amaituko dugu laster, eta hortik etorkizunari begirako hainbat gogoeta abiaraziko ditugu. Bizkaiko Bertsolari Txapelketa eta Xilaba (Xiberoa, Lapurdi eta Baxe Nafarroako txapelketa) jokatu dira aurten. Horrekin batera, Araban eta Nafarroan egiten ari



Batzar Nagusia.//XDZ

diren taldekako esperientzien azterketa ere egingo dugu.

Gainerakoan, hedapenerako ditugun tresnekin segituko dugu lanean: Hitzetik Hortzera, Bertsoa.com, hainbat hedabiderekin hitzarmenak...

Lanku Bertso zerbitzuak

Bizi dugun ekonomia egoera zailean, merkatu eta lan ildo berriak jorrotzea da Lankuren aurtengo helburu nagusia. Horrez gain, Lankuren erabiltzaileekin harremanak are gehiago findu nahi ditugu. Saio antolatzaileak, bertsolaritzaren inguruan mugitzen diren eragileak eta bertsolariak eta sortzaileak dira erabiltzaile nagusi horiek.

Transmisioa Eskolarteko berritua

22.318 ikasle ditugu 2013-2014 ikasturtean hezkuntza arautuko proiektuan. Programari modu duin batez erantzun ahal izateko finantzazioa ziurtatzea izango dugu aurtengo zereginetako bat, zailtasunak gero eta ugariagoak baitira.

103 herritan dira bertso-eskolak eta horietan 1146 kide ari dira bertsolaritzaz gozatzen.

Horiei oinarrizko materiala eskainiko zaie eta bertso-eskolei zuzendutako ikastaro sorta egiten lagunduko dugu.

Bertso-eskolen topaketaren edizio berria egingo dugu, aurten Ipar Euskal Herrian izango dena. Lehen aldiz, bertso-eskoletako kideentzat Euskal Herri mailako negu-lekuak antolatuko ditugu. Horrez gain, bertso-udalekuen edizio berria antolatu dugu.

Eskolarteko txapelketa berritua jarri dugu martxan Ikastolen Elkartearekin elkarlanean. Prestaketa luze baten ondorioz, udaberrian gauzatzen ari gara.

Finantzak Proiektuak egokitu beharra

Egoera ekonomiko orokorra eragina izaten ari da Bertsozale Elkartearen proiektuan, nabariak izaten ari dira krisia eta murrizketen zantzuak. Hala ere, esku artean ditugun proiektuak egokitzu eutsi ahal izan diogu 2013ari.

2014ra begira, aurrekontuak orekatzeko finantzazio publikoarekin lanean segituko dugu, euskara sailetatik haratagoko elkarlan harremanak bilatuz (Hezkuntza, Kultura, ondare... sailak) eta finantzazio pribaturako zein auto-finantzaziorako bideak sakonduko ditugu.

Iñaki Murua Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Lehendakaria

"Guretzat krisia ideia edo proiektu eza litzateke"

Hurrengo hiru urtetarako Lehendakari izendatu du batzarrak Iñaki Murua. Gainerako kargudunen postuetan ez da aldaketarik izan, Xabier Gaztelumendik segituko du Idazkari izaten eta Arrate Illarok Diruzain. Egoera ekonomiko zailaren aurrean, Elkartearen proiektua nabarmendu du Iñaki Muruak.

Aho batez hautatu zaituzte berriro ere Bertsozale Elkarteko lehendakari. Nola hartzen duzu bazkideek zugarri jarri duten konfiantza?

Pozez eta arduraz, baina hauek ez dira nire botoak, Bertsozale Elkarteko ekipo osoarenak baizik. Argi daukat lehendakaria ordezkatzeko baina zailagoa dela elkarte honetan beste postu klabe batzuetako pertsona ezin klabeagoak ordezkatzeko. Gainera, gure elkarte proiektu berean ari diren sei elkartek osatzen dute, sei buruek bat eginda ari den elkarte da beraz; 72 soldatapeko lankideez gain, beste ehundik gora borondatezko lanean ari garenak biltzen dituen elkarte.

Bertsozale Elkarte sendo dago, baina argi gorriak ere piztuta daude. Krisia aipatu zen behin baino gehiago batzarrean. Nola ikusten duzu egoera? Mundu guztiak krisia aipatzean, diruarekin lotzen du edo, hobeto esan, diru ezarekin. Gure elkarte diru irabazi asmorik gabeko elkarte denez, guretzat krisia ideia edo proiektu eza litzateke. Diruarena arazoa da, ez da krisia.

Egia da garai larrietan bizi garela, proiektuak gauzatzeko dirurik gabe edo iritsi ezinik kasu askotan. Hainbat herrialde defizit estrukturaletan murgildurik daude eta bertsozaleek eurek aukeratzen dute nola aurre egin egoerari eta lehentasunak markatu, hautatu, non ebaki non moztu... Minetik ari gara batzuetan ezin iritsian, ez gogo faltaz, aurrekontu arazoengatik baizik. Hala ere, larri baina bizirik gaude.

Gabeziak gabezia, proiektu faltan ez da Bertsozale Elkarte, ezta?

Proiektu ikaragarria da, Batzarrean bota

ziren guztiak laburbiltzea ezinezkoa da. Hasi transmisioetik: Hezkuntza Arautuko zifrak begiratu; aisialdiko plana, udaleku eta negulekuekin, bertso-eskoletarako ikastaroak... Sustapenean saio berezien alorrak, berak esan nahi duen guztiarekin... Beste dena ahaztu gabe! Ikerkuntzak dakarren martxa, Mintzola barneratuta, udako ikastaroekin eta Mintzola-Mikel Laboa katedra beka aurten bigarren eman nahi dugunarekin... Zeresanik ez, genero alorrean egiten ari garen lana. Edo Lankuk hartu duen bide interesgarria. Lehen aipatu dudana bezala, proiektu falta dugunean egongo da Bertsozale Elkarte krisian.



Iñaki Murua lehendakaria.//XDZ

Bardoen finala, hilaren 12an Lesakan

Arabako bertso-kuadrilla artekoa amaitu berritan, Nafarroako Bardoak taldekako txapelketa ere amaierara ailegatuko da hilabete honetan.

Apirilaren 12an Lesakako frontoian Bardoen finala egingo da, eta bertan hiru talde izango dira: Baztango Lepatanatuek 2, Iruñeko Bertze Maldikoak eta Leitzako Harrapazank.

Lehia ez da Bardoen helburu nagusia, horregatik saio horrek otsailaren 7an abiatu zen ekimenaren amaierako ekitaldia izan nahi du, bertsoari eta euskal kulturaren festa. Bi hilabete hauetan 22 saio egin dira Nafarroan barna, eta horietan 60 bertsoari hartu dute parte. Osotara, 110 izan dira parte-hartzaileak, 16 taldetan banatuta.

Lesakako finala arratsaldeko 17:00etan hasiko da eta, orain arte gertatu den moduan, talde lana izango da bederatzi bertsoari egin behar dutena. Saioaren ostean, triki-poteoa abiatuko da frontoitik eta ondoren Bardoen amaierako afaria egingo da Lesakako Lindurrenborde sagardotegian.

Finalerako zein ondoko afarirako sarrerak salgai dira www.bertsosarrerak.eu web gunean. Horrez gain, Lesaka, Bera, Iruñea, Elizondo, Altsasu, Leiza eta Lekunberrin eros daitezke sarrerak.

Bardoen inguruko informazio osoa www.bertsozale.com/bardoak helbidean aurkituko duzue.



2012ko finaleko irudia.//NBE

Bertso-eskoletan ikastaroak antolatzeko aukera

Helduen bertso-eskolei zuzenduriko ikastaro sorta eskainiko du bertso-eskolen batzordeak aurten ere. Helduen bertso-eskolei ikastaroak antolatzeko laguntza luzatzea da ekimen honen helburua. Aukeran ikastaro sorta bat eskaintzen da, baina proposamen berriak ere egin ahal izango dituzte bertso-eskolek. Eskerak egiteko epea maiatzaren 5ean amaituko da.

Bertso-eskola bera izango da ikastaroaren antolatzaile, eta nahieran itxuratu ahal izango du: talde barrurako ikastaro gisa, herri mailara zabalik, bailarako bertso-eskolekin elkartuta, bere urteko ekitaldien barnean... Ikastaroaren finantzaketa erdia Bertsozale Elkarteak lagunduko du. Gainerakoa bertso-eskolak berak ordainduko du.

Informazio gehiago nahi duenak bertsoeskolak@gmail.com helbide elektronikora jo dezake informazio eske

Oskar Estangaren "Errimatuz, garenera arrimatuz" aurkeztu du Lankuk

"Errimatuz, garenera arrimatuz" Oskar Estanga bertsoari eta musikari nafarraren proiektu berria da. Oinarri musikalen eta gitarren laguntzarekin, bat-bateko eta aurrez landutako hip-hop kantak eskainiko ditu, denak bere sormenekoak.



Kantu proiektua izateaz gain, solasaldia ere bada, kantu ezberdinen gaien inguruan entzulegoari lutzatzen zaizkion bakarriketak ere agertuko baitira emanaldian.

Lankurekin elkarlanean "Errimatuz, garenera arrimatuz"-en zuzeneko emanaldiak eskaintzen hasi da Estanga: Getxo, Lekunberri, Iruñea... Emanaldiarekin interesik duenak Lankun topatuko du informazioa: www.lanku.com-en edo marketina@lanku.com helbide elektronikora mezua idatziz.

Bazkidetza kuotaren kobraketa, maiatzean

Bertsozale Elkarteak bazkide guztiei jakinarazi nahi dizuegu maiatzaren hasieran kobratuko dugula urteko bazkidetza kuota.

Bazkidetza kuota ez du igoerarik izango, iazko kopuru berekoa izango da: bazkidetza arrunta 45 euro eta elkarte laguntzaileena 85 euro. Gai honen inguruan zalantzarik baduzue, jar zaitezte gurekin harremanetan: 943694129 / administrazioa@bertsozale.com



Puntuajarrita

AITOR URBIETA

MUGAK ETA SAILKAPENAK

Has nadin ba Tartaloren bigarren begituk deskribapenak egiten. Aspaldian bota dizkidaten piroporik politenak bota baitzikidazu: aktibo, kontzientziadun eta bertsolari.

Azken adjektibo honengandik hasi nahi nuke, bertsolari. Noiz iristen da norbait bertsolari izatera? Non dago muga? Orokorrean, bertso-eskolara joan eta bat-batean bertsoa txukun antzean moldatzeko gai dena bertsolari gisa sailkatu ohi da, eta jendaurrean, edo areago, txapelketa edo sariketa batean irtetzen bada, bertsolari on edo maila handikoa. Irizpide oker samarra delakoan nago.

Pentsa, Lazkao Txiki bere burua ez omen zeukan bertsolaritza, edo hala zeukanik ez zuen esan nahi izaten behintzat. Ez dakit hitzari Joxe Mielek zion adinako muturreko errespeturik edukitzerik komeni zaigun, baina batzuetan arinegi edo errazegi erabiltzen dugun irudipena daukat.

Bestelako adibideak ere badauzkagu gure eskualdean. Alegia, bertso-eskolara joan ez direnak eta plazan inoiz kantatu ez dutenak, baina zaletasun ikaragarria dutenak eta belarria beti erne dutenak bertsoa nori entzungo. Gero, eurek mingaina dantzatzen dutenean izen handiagoa dutenak estu hartu ere bai sarritan.

Hauk behegoko gradu batean sailkatzen dira; gautxori edo sasibertsolari deitzen zaie. Zergatik ez dute bertsolari izenik merezi? Ez al da batzuetan gertatzen sasibertsolaria usteko bertsolaria baino hobea izatea? Egoera honek berak azaltzen du, hein batean bertsolaritza gure paisaia nahiko hedatua edo gutxienez gehiengo batek hurbileko sentitzen duen fenomenoa dela.

Bete behar genituzkeen funtzioak aipagai oraingoan: tabuak argitaratu, auzoen begi kritikoa izan eta abar. Terreno irristakorrean erortzeko arriskua ikusten dut hor. Bertsolarien aniztasuna, geroz eta zabalagoa da, bai adinari, jatorriari, estetikari zein bizimoduari dagokionez eta guztiei funtzio komun bat aurkitzea ez da erraza.

Geure kasua esaterako. Herri, Ikastola eta garai berean 3 bertsolari irten ginen, gaur egun gutxi edo gehiago oraindik bertsoan dihardugunak baina oso ikuspegi ezberdinetik, eta betetzen ditugun funtzioek ere elkarren zerikusi handirik ez dutela esango nuke. Norberak ikusi behar du non eta nola egin lezakeen bere aportazio handiena, eta hortan saiatzea onena.


Funtzioez eta eskualdeez ari garela, Tolosaldean zalaparta dexeñte darabilte azken boladan. Beñat Iguaranen izena ere irakurri dut nonbaiten. Beno Beñat, zuen eskualdeko diagnostiko txiki bat egituk, azken urteetan bete dituzuen funtzioak eta herri artekoak utzi dizkizuen sententzioak azalduz.

Koplak

Txapelketa Nagusiko liburua eta diskoa, kalean

Maiatzaren hasieran aurkeztuko dira Amasa-Villabonan Bertsolari Txapelketa Nagusia 2013ko liburua eta diskoa, eta ordurako salgai izango da ohiko liburu dendetan. Bertsoaldien transkripzioak, argazkiak, dokumentazioa, doinu berrien partiturak eta Mintzola Fundazioan ikertzen ari diren adituen iritziak bilduko ditu liburuak. Diskoak, berriz, Txapelketako 197 bertso saio jasoko ditu, mp3 formatuan.

Poto-Finixa



Eskualdeetako txapelketak Bizkaian

2014a Txapelketa urtea dugu Bizkaian, eta jadanik, martxan daude prestaketak. Bizkaiko Txapelketa udazkenean jokatu da, baina udaberriarekin batera, martxan jarriko dira eskualdeetako txapelketak. Apirilean hasiko dira kanporaketak, eta maiatzean jokatu da zortzi eskualdeetako finalak.



XABIER AMURIZAREN azken liburua Lankun dago eskuragarri

Sartu www.lanku.com helbidean eta egin eskaera!

